

Mugaz gaineko lankidetzari buruzko solasaldia Miarritzen

Europaren ekialdetzeari aurre egin behar zaiola azpimarratu dute

Atzoko solaskideek kezka hori azaldu zuten hitzaldietan

Hur Gorostiaga / Miarritze

Europako Kontseilua eta Batzordea Europako Batasuna 15 estatutik 27 estatutara pasatzeko prestatzen ari direnean, «Euro-

paren ekialdetzeak» ekar litzakeen ondorio kaltegarriari aurre egiteko moldetzat jo zuten atzo mugaz gaineko lankidetzari. Interreg III plangintzak hiru atal izanen ditu.



ANGELA MEJIAS

Alain Lamassoure eta Roman Sodupe, atzo, Miarritzen.

GAURTIK aitzina Europako Batasuneko Estatu ordezkariak Hesinkin egitekoa duten bilkura kontuan izanik, 2002. urterako Europako Batasuna 15 estatutarik 27 estatu kideetara pasa liteke. Horretarako prestakizunak heldu den urte hastapenetik hasia proposatu dute Romano Prodi Europako Batzordeko lehendakariak eta Michel Barnier eskualde politikako arduradunak. Heldu diren bi urteetan Europako Batasuneko hitzarmen eta egituratzeko testuak berrazter-

tuko dituzte, 2002ko zabalpena gerta dadin. Horretarako zenbait neurri hartu beharko dituzte, besteak beste aho batez egin ohi ziren erabaki gehienak gehiengo kalifikatura pasatzea.

Kide berriak ekialdeko herriak izanik, aldaketa horrek arku atlantikoan sortzakeen arazoez mintzatu ziren atzo, bertzeak bertze, arratsaldeko lantaldeetan. Europaren «ekialdetzeak» arku atlantikoa «lanjeran» ezar lezake; «periferizazioaren arriskua» ezarri zuten mahai

gainean. Arkua indartzeko, «eskualde, muga eta estatuen arteko harremanak sakondu» behar direla azpimarratu zuten ondorioz.

Hain zuzen ere, Interreg III programak hiru atal horiek bereiziko ditu. Interreg III programak aurreko biak baino aurrekontu zabalagoa izango du, eta, hala, 6.000 milioi libera izango ditu (150.000 milioi pezeta). Interreg III aurrekoekin alderatuz gero, mugaldeko eskualdeei diru gehiago zuzentzen diela ikus daiteke.

Zailtasunak gainditzeko direla dio Lamassourrek

H.G. / Miarritze

SOLASALDIEN irekiera ofiziala Alain Lamassoure BAM Aglomerazioko buru eta Angeluko auzapezaren eskutik heldu zen goizean. Baiona-Donostia Eurohiria Frantzia mailan mugaz gaineko harremanetako bost adibide garrantzitsuenetarikoa izaki, Lapurdiko hiriburutik Gipuzkoako hiriburura egitura bakar gisa antolatzen hasteko izan dituzten zailtasunak aipatu zituen Alain Lamassourrek.

Lege eta ohitura ezberdinez gain, urteetako mugaren ondoriozko ezagutzaren eskasia nabarmendu zuen. Horrez gain «bake zibilik ez dagoen eskualdea» dela ohartarazi zuen gisa berean europarlamentari zentristak. Berak bultzatutako Baionako Itunaren bidez ireki ziren bide berriak aipaturik, elkarlanean sakontzeko prest agertu zen Lamassoure, bakoitza bere eskualdean egonez elkarlana bideratu behar zela erranik.

Mugaz gaineko harremana geldiezin da Suduperendako

H.G. / Miarritze

EUROPAREN baitan «mugaz gaineko harremanak Europako Batasunaren eraikuntzan ezinbestekoak» direla eta ondorioz «XXI. mendearen atarian geroz eta errealitate geldiezinagoa» dela adierazi zuen Roman Sodupe Gipuzkoako ahal-dun nagusiak.

«Mugaldeko herritarrok Europako Batasun eta integrazioaren aitzindariak iza-

tearen xantza ukan dugu. Gure eskualdea laborategi bat da, eta bertan egingen dira mugarik gabeko espazioen integrazioa, kohesioa eta eraikuntza erdiesteko ahal-ekinak», zehaztu zuen Roman Sodupe. Baiona-Donostia Eurohiria «600.000 biztanleko egiazko hiria sortzeko elkarlana» dela adierazi zuen Roman Sodupe Gipuzkoako ahal-dun nagusiak.

Pirinioarteko bulegoa, Jacan

PIRINIOARTEKO Lankidetzari Elkartea zazpi eskualderen arteko egitura mugaz gaineko harremanen «laborategia» izan dela adierazi zuen Frantxua Maitia eskualde kontseilariak. Mugaz gaineko harremanak sakondu behar

direla aldarrikatu-rik, Akitaniak bere auzokideekin bultzatu dituen ekimenak azpimarratu zituen. Akitania, Languedoc-Rousellon, Midi Pyrénées, EAE, Nafarroa, Aragoi eta Kataluniak osatua, Pirinioarteko Lankidetzari Elkartea el-

karlanean urrunago joateko xedea duela adierazi zuen, bulego bakarra Jacan ireki eta egitura bakar gisa aritzeko asmoarekin. Horretarako, kudeaketa eta kutxa bakarra osatu beharko dute. Hala ere, egiturak dituen elkarlan helburuen

betetzeko, Europako laguntzak behar direla azpimarratu zuen. Besteak beste, garraioen eta ingurugiroari buruzko ikuskaritza antolatuko du Pirinioarteko Lankidetzari Elkartea heldu diren hilabeteetan.